




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)



MAHAIARI

REBEKA UBERA ARANZETAK, ARALAR Taldeko Batzarkide denak, organo horren aurrean ondorengoaz **AZALTZEN DU** :

Idatzi honen bidez eta Batzar Nagusien Jarduerarako Araudiaren arabera, honako **INFORMAZIO IDATZIA** eskatzen dio Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Foru Diputatuari :

Abenduaren amaieran jaso genuen itxoite zerrendei buruz Departamenduak gure galderei egindako erantzuna. Emandako informazioan literalki aipatzen da *“Gure zerrendak baliabideak eskatu dituzten pertsonen zerrendak dira, eta batzuetan bat datoz formaz tramitatutako eskaerekin, baina beste batzuetan ez.”*

1.- Beraz, gure taldeak jakin nahi du zenbat pertsona zeuden emandako erantzun horretan aipatzen diren **“ZUEN ZERRENDETAN”**, 2005eko ekainean eta 2005eko azaroan, ondoren doan tipologiaren arabera,

Genero bortxakeriaren biktimak.
Etxegabeak.
Toxikomanoak.
Etorkinak.
Preso ohiak.
Gutxiengo etnikoetako familiak.
Egonaldi motz, ertain eta luzeko bizilekuak.
Gizarteratze sozio-laborala.
Larrialdietako zentroak.
Gazteak 18-23.
Emakume baztertuak.

2.- Gure taldeak jakin nahi du zeintzuk diren **“formaz tramitatutako eskaerak”** eta zeintzuk diren formaz tramitatutakoak izan ez direnenkin dagoen aldea.

3.- Gure taldeak jakin nahi du **“ZUEN ZERRENDA”** horietan zenbat pertsona dauden formaz tramitatutako eskaera dutenak eta zenbat diren formaz tramitatutako eskaera ez dutenak.



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

ZIOA

Talde honen jardura politikorako guztiz beharrezkoa da informazio hori eskuratzea Foru Aldundiaren Gobernuak daraman politika baloratu ahal izateko.

Donostia, 2006eko martxoak 9

Rebeka Ubera Aranzeta
ARALAR Batzarkide Taldea